

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 21a

136. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

—Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (20. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak Antsoingo Udalari buruz emandako fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Antsoingo Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainoakoa (5. or.).
- IV. 2012ko kontu orokorrari buruzko iritzia (5. or.).
 - IV.1. Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra (5. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (5. or.).
 - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2012ko abenduaren 31n (5. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (8. or.).

V. Udalaren 2012ko kontu orokorraren laburpena (9. or.).

V.1. 2012ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (9. or.).

V.2. 2012ko aurrekontu-emaitza bateratua (10. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n (10. or.).

V.4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (11. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontu bateratua 2012an (12. or.).

VI. Udalari eta haren penpeko enteei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (13. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (13. or.).

VI.2. Langileak (14. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (16. or.).

VI.4. Transferentzia arruntetako gastuak (17. or.).

VI.5. Inbertsioak (17. or.).

VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (17. or.).

VI.7. Hirigintza (19. or.).

Eranskina. Udalaren 2012ko kontu orokorraren oroitidazkia (xx. or.).

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Antsoaingo Udalaren eta haren menpeko enteen 2012ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Antsoaingo udalerrriak 1,91 km²-ko azalera dauka, eta 2012ko urtarrilaren 1ean, 10.938 biztanle dauzka.

Entitatea	Aitortutako betebeharrak,	Aitortutako eskubideak	Langileak, 31-12-2012
Udala	7.612.593	7.146.804	71
Gazte-Berriak Kirol eta Kultura Patronatua	458.121	139.922	3
Bateratua, guztira	8.070.714	7.286.726	74

2012an, Udalak 318.199 euroko ekarpena egin dio, guztira, bere erakunde autonomoari.

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

a) Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.

b) Antsoain, Berriozar, Iza eta Xulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programak, harrera eta orientabide sozialaren zerbitzua, haurtzaroaren eta familiaren zerbitzua, gizarteratzea eta lan munduan sartzeko

Tokiko zerbitzu publikoak emateari begira, Udalak erakunde autonomo bat sor-tua du kirola eta kultura kudeatzeko.

2012ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

zerbitzua, babestutako enplegu soziala eta herri-tar etorkinekiko ekintza-zerbitzuak.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2012an
Iruñerriko Mankomunitatea-Eskualdeko garraioa	191.644
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	218.823

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Erak. auton.	Manko-munitatea	Zerbitzuen kontratazioa	Errenta-mendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua			X		
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua			X		
0-3 urteko haur-eskolak	X				
Musika eskola				X	
Hirigintza	X				X
Lorategiak	X			X	
Hiri-hondakinak			X		
Ur-hornidura			X		
Kale garbiketa				X	
Garraio publikoa			X		
Liburutegia-ludoteka	X				
Kontsumitzailearen Arreta Zerbitzua				X	
Kaleen eta bideen mantentzea	X				
Kultura	X	X			
Kirol arloa	X	X			
Kirol-jardueren kudeaketa				X	
Udal kiroldegiak	X			X	
Babestutako enplegu soziala			X		
Diru-bilketa exekutiboa				X	

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Orokorrek Nafarroako toki entitateetan aplikatzekoa dena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako estatuko funtsa sortu zuena.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak, dira.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantzairakortasunari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, defizit publikoa

zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

Ekainaren 29ko 2/2012 Legea, 2012rako Estatu Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahaltenaren galera dela-eta.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Pla-nari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luza-tzen duena.

Abenduaren 21eko 246/2011 Foru Dekretua, Kontratuei buruzko Foru Legearen Europar Bata-suneko atalaseak eguneratzen dituena.

- Berariazko araubidea.

Antsoingo Udalaren 2012ko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gai-nerako barne-arauak.

txostenak sei atal ditu, sarrera hau ere barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2012ko kontu orokorren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2012ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Antsoingo Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Antsoingo Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Antsoingo Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza era-kosten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Udalak 2012an izandako finantza-jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

- Udalaren finantza-egoera 2012ko abenduaren 31n.

- Ganbera honek 2011ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak no-raino aplikatu diren.

txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko enteei ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Antsoingo Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak honako elementu nagusiak dauzka:

- Erakundearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoarena: aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonoak), oroitidazkia eta zorraren egoera-orria.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari

jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoari dagokionez, aurrekontuaren eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiboak ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak ebaluatu dira.

IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Antsoingo Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzia hau ateratu dugu:

IV.1. UDALAREN 2012ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Oraindik ere ez da amaitu 1995eko inbentarioaren gaurkotze- eta onespenez-prozesua.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, esan daiteke 2012ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun-printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANZARIOA 2012ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 8,59 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 2,86 –hau da, 0,24 milioi– handitu

da aurrekontu-aldaketen bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 8,83 milioikoak dira. Aldaketa hauek, funtsean, inbertsioen kapituluan dute eragina.

Aitortutako betebeharrak 8,07 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 91ko bete-tze-maila izan dute. Maila horren arrazoa da gastu gutxiago egin izana, batez ere inbertsioetan; izan ere azken horien ehuneko 37 baizik ez dira bete.

Aitortutako eskubideak 7,29 milioi eurokoak dira, eta ehuneko 82ko betetze-maila izan dute; ehuneko horren azalpena, funtsean, tributu bidez-

ko diru-sarreraren exekuzio txikia izan da –bereziki EIOZaren exekuzio txikia–.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak eta kapital-gastuak gastuen ehuneko 97 eta ehuneko 3 dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntek guztizkoaren ehu-neko 100 egiten dute, zeren eta ekitaldian ez baita izan ez kapitaleko diru-sarrerarik ez diru-sarrera finantzariorik; diru-sarreraren ehuneko 40 jasotako transfe-rentzietatik heldu dira.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantzaketa-iturria	Kopurua
Langileak	42	Tributu bidezko diru-sarrerak	60
Bestelako gastu arruntak	55	Transferentziak	40
Inbertsioak	1	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	0
Finantza-zama	2	Zorduntzea	0
Guztira	100		100

Hona Udalaren 2012rako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2011koarekiko alderaketa:

	2011	2012	Aldearen %, 2012/2011
Aitortutako betebeharrak, guztira	9.253.502	8.070.714	-13
Likidatutako eskubideak, guztira	7.992.781	7.286.726	-9
Gastuen exekuzioa, %	87	91	5
diru-sarreraren betetzea, %	75	82	9
Ordainketak (%)	95	95	0
Kobratutakoa (%)	92	92	0
Gastu arruntak (1etik 4ra)	8.211.429	7.845.738	-4
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	8.180.004	7.812.000	-4
Inbertsioen gastuak (6 eta 7)	850.510	104.435	-88
Finantza-eragiketen gastuak (8 eta 9)	191.563	120.541	-37
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.653.356	7.286.726	-5
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	4.650.423	4.369.376	-6
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	339.425	0	-100
Diru-laguntzen menpekotasunak, %	41	40	-2
Gastu arruntzen gaineko tributu bidezko diru-sarrerak, %	57	56	-2
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-1.069.158	-663.447	-38
Aurrekontu-emaizta doitua	-980.203	-685.865	-30
Aurrezki gordina	-526.648	-525.274	0
Finantza-zama (3tik 9ra)	222.988	154.280	-31
Aurrezki garbia	-749.636	-679.554	-9
Zorpetze-maila, %	3	2	-33
Zorpetze-muga, %	-7	-7	0
Zorpetze-ahalmena, %	-10	-9	-10
Diruzaintzako gerakina, guztira	2.790.629	1.872.475	-33
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	223.953	-479.491	-314
Zor bizia	1.506.500	1.385.958	-8
Diru-sarrera arruntzen gaineko zor bizia, %	20	19	-5
Zor bizia biztanleko	140	127	-9
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	-3	-3	0

2012an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 13 gutxiago gastatu du eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 9 gutxiagoko diru-sarrerak izan ditu.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko lauko hazkundea izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko bost egin dute behera. Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko sei jaitsi dira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa negatiboa da, 663.000 eurokoa, eta horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak ez direla izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak izan. Hala eta guztiz ere, saldo hori nabarmen jaitsi da, zeren eta 2011ko ekitaldian milioi bat negatiboa baitzen.

Aurrekontu-emaiza doitu -0,6 milioikoa da; aurreko urtean, berriz, -0,9 milioikoa izan zen. Defizit hori sortu da diru-sarrera arruntak ez direlako izan funtzionamendu gastuak eta finantzazama finantzatzeko behar adinakoak. Halaber, kapital bidezko diru-sarrerak ez dituzte finantzazten egindako inbertsioak.

2012an, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak balio negatiboak izan dituzte. Aldaketarik gabe mantendu da aurrezki gordina, aurrezki garbiaren zenbateko negatiboak, berriz, ehuneko 9 egin du behera.

Zorpetze-maila ehuneko 2koa da, eta bere muga negatiboa da, ehuneko 7koa hain zuzen; horrenbestez, ez du zor berririk hartzeko gaitasun ekonomikorik.

Diruzaintzako guztizko gerakina 1,9 milioikoa da, eta ehuneko 33 egin du behera 2011koarekin alderatuta. Gastu arruntetara bideratu den gerakinak behera egin du, 0,2 milioikoa izatetik 0,11 milioi negatiboa izatera pasa baita. Baliabide atxikiengatiko diruzaintza-gerakinak 367.845 eurotan egin du behera, zeren eta Udalak 2011rako Nafarroako Aurrekontuei buruzko Legearen 45. artikuluan aurreikusitakoa aplikatu baitu; izan ere, artikulua horrek gaikuntza ematen zien udalei lurzoruaren udal ondarearen besterentzearen ondorioz lortutako diru-sarreraren ehuneko 15 bitarte gastu arruntaren finantzaketara bideratzeko; kopuru hori, nolana ere, 10 urteren buruan itzuli beharko zituzten, beranduenez.

Epe luzeko zorra 1,38 milioikoa da, eta ehuneko 8 egin du behera 2011koarekin alderatuta; zor hori –biztanle bakoitzeko 127 eurokoa dena, guztira– entitatearen diru-sarrera arruntaren guztizkoaren ehuneko 19 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2012ra arte:

Aitorrutako betebeharrak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Langile-gastuak	2.861.899	2.975.019	3.242.892	3.414.827	3.383.223	3.347.917	3.360.493
2. Ondasun arruntaren eta zerbitzuen gastuak	3.215.247	3.243.923	3.892.139	4.092.555	4.091.873	4.258.563	3.871.340
3. Finantza-gastuak	169.981	98.297	156.182	88.878	45.005	31.425	33.738
4. Transferentzia arruntak	431.081	440.560	484.128	521.728	598.881	573.524	580.167
6. Inbertsio errealak	1.528.308	1.272.849	3.749.713	3.380.990	1.693.868	850.510	104.435
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	2.040	0	0
9. Finantza-pasiboak	3.428.269	155.803	143.755	153.772	163.479	191.563	120.541
Guztira	11.634.785	8.186.452	11.668.808	11.652.750	9.978.369	9.253.502	8.070.714

Aitorrutako eskubideak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Zuzeneko zergak	2.304.199	1.792.881	1.909.214	2.121.235	2.204.448	2.288.065	2.317.702
2. Zeharkako zergak	946.323	1.005.015	668.191	57.179	94.986	149.606	230.194
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.300.175	2.262.353	2.037.563	2.012.285	2.050.629	2.212.572	1.821.480
4. Transferentzia arruntak	2.571.435	2.661.659	2.962.109	2.995.648	3.211.433	2.950.437	2.901.221
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	113.990	175.964	297.378	207.111	170.780	52.676	16.128
6. Inbertsio errealak besterentzea	2.506.157	340.722	3.746.901	0	18.658	0	0
7. Kapital-transferentziak	2.405.498	674.246	915.419	2.845.680	1.454.925	339.425	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	13.147.777	8.912.841	12.536.775	10.239.137	9.205.860	7.992.781	7.286.726

Aurreko taulako kontuetatik erator daitekeen bezala, gastuak egonkor mantentzen dira 2009ra arte, salbu eta 2007an, eta behera egiten dute hurrengo urteetan; bestetik, inbertsioen gutxitzea oso nabarmena izan da.

Diru-sarreraren aldetik, jokabide desberdinak ikus daitezke kapitulu desberdinetan. Hartara:

- Zuzeneko zergek behera egin zuten 2007an, eta gora egin zuten, berriz, hurrengo urteetan; 2012an 2006ko maila berean zeuden.
- Zeharkako zergek gora egin zuten 2007ra arte, eta gero bat-bateko jaitsiera izan zuten 2009ra arte; hurrengo urteetan, berriz, igoera txikiak izan zituzten.
- Tasak urtero jaitsi dira.
- Transferentzia arruntek 2006-2012 aldian gora egin zuten, nahiz eta gorenko puntura 2010ean iritsi ziren.
- Inbertsioen eta kapital-transferentzien besterentzea, modu irregularrean bada ere, jaisten joan dira, 2012an deusezak izateraino; izan ere, urte horretan inbertsioak izan litezkeen txikiak izan dira.
- Iraganean ez da finantza-pasiboen bitarteko finantzaketara jo.

Ondorioz, eta azken laburpen gisa, Antsoaingo Udalak erakusten du bere finantza-egoera gero eta gehiago hondatzen ari dela; egoera horri, orain arte, konponbidea bilatu zaio azken urteotan udal-barruti honetan abian jarri diren hirigintza-jarduera handietatik jasotako baliabideei esker. Hala eta guztiz ere, Udalak hartutako neurriek aukera eman dute defizita gutxitzeko, eta neurriak hartzen ari dira hura deuseztatzeko.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa ber-matzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da toki korporazioei egokitutako kontabilitate nazionalaren defizita kalkulatzeko esku-liburua aplikatuz –esku-liburu hori Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiak egindakoa da–. Emaizta hurrengo taulan azaltzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
I. kapitulutik VII. kapitulura bitarteko gastuak, guztira	7.950.173

I. kapitulutik VII. kapitulura bitarteko diru-sarrerak, guztira	7.286.726
Aurrekontu-emaizta ez-finantzarioa	-663.447
Finantzazioaren beharra	-663.447

Horrenbestez, ikusten da An-tsoaingo Udalak ez dituela aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak betetzen, baina bai finantza-iraunkortasunari buruzkoak, zeren eta zorra ezarritako muga baino txikiagoa baita.

Udalaren kontu-hartzaileak oroitidazkian agerian jartzen du ezin izan dela 2012ko ekitaldian oreka finantzarioa lortu, nahiz eta gastuari eusteko arauak apli-katu; "hori dela eta, udalbatzak neurri zehatzak hartu beharko ditu egoera honi konponbidea emateko".

Gaur egun, Udala plan ekonomik-finantzario bat izapidetzen ari da, 2014ko ekitaldian emaitzak birbideratu ahal izateko; hartara, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legean ezarritako baldintzak beteko dira.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintza eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabilera gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honen 2011ko ekitaldiko txostenari dagokionez, garrantziko aholku hauek oraindik gauzatzeko daude, txosten honen IV. atalean berresten den bezala:

- *Aurrekontua indarrean den legediak ezarritako epeetan egin eta onestea, ku-deaketarako oinarritzko tresna izan dadin.*

- *Hirigintza-plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzeko prozesua osatzea. Horri dagokionez, adierazi behar dugu 2013an hirigintza-plana behin-behinekoz onetsi dela.*

- *Udal-ondasunen inbentarioaren eguneratzea burutzea.*

V. UDALAREN 2012ko KONTU OROKORRA- REN LABURPENA

Ondoren, 2012ko kontabilitatearen egoera-orri bateratu (Udala gehi erakunde autonomoak) garrantzitsuenak azaltzen ditugu.

V.1. 2012ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreik.	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren portzentajea	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoenaren %
1. Langile-gastuak	3.517.353	22.146	3.539.499	3.360.493	95	3.169.859	190.634	6
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	4.239.896	-52.774	4.187.122	3.871.340	92	3.421.592	449.748	12
3. Finantza-gastuak	73.779	-1.157	72.622	33.738	46	33.738	0	0
4. Transferentzia arruntak	629.825	250	630.075	580.166	92	560.228	19.939	3
6. Inbertsio errealak	9.600	276.369	285.969	104.435	37	104.435	0	0
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	119.385	1.157	120.541	120.541	100	120.542	0	0
Guztira	8.589.838	245.991	8.835.830	8.070.714	91	7.410.393	660.321	8

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreik.	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobratzeko	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	2.630.000	0	2.630.000	2.317.702	88	2.117.956	199.747	9
2. Zeharkako zergak	375.791	0	375.791	230.194	61	210.723	19.471	8
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.602.382	0	2.602.382	1.821.480	70	1.699.160	122.320	7
4. Transferentzia arruntak	2.919.563	0	2.919.563	2.901.221	100	2.691.664	209.558	7
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	52.502	0	52.502	16.128	31	13.204	2.924	18
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital-transf.	9.600	0	9.600	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	245.991	245.991	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	8.589.838	245.991	8.835.830	7.286.726	82	6.732.706	554.019	8

V.2. 2012ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	7.992.781	7.286.726
- Aitortutako betebeharrak	9.253.502	8.070.714
= Aurrekontuaren emaitza	-1.260.721	-739.989
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	165.899	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	94.497	8.242
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzaturiko gastuak		
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak	351.920	89.882
= Aurrekontu-emaitza doitua	-980.203	-685.865

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2012ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2011ko ekitaldia	2012ko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.571.720	1.474.596
(+) Sarrerak: aurtengo ekitaldia	648.942	554.019
(+) Sarrerak: itxitako ekitaldiak	1.434.901	1.526.392
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	74.253	75.315
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	586.376	681.132
(-) Ordaintzeko dauden obligazioak	574.024	779.434
(+) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	424.986	660.321
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak		200
(+) Diru-sarreraren itzulketak	3.690	1.040
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	4.673	394
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	150.021	118.268
(+) Diruzaintzako funts likidoak	1.789.504	1.169.256
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	3.430	8.057
= Diruzaintza-gerakina, guztira	2.790.630	1.872.475
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	114.378	110.764
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	2.452.298	1.873.357
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	223.953	-111.646

V.4. 2012ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Jardunean

Deskribapena	2012	2011
A. Ibilgetua	26.080.752	25.976.317
1 Ibilgetu materiala	25.126.061	25.049.184
2 Ibilgetu ez-materiala	482.940	470.403
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	453.678	438.657
4 Herri-ondasunak	15.731	15.731
5 Finantza-ibilgetua	2.342	2.342
C Ibilkorra	3.931.300	5.829.408
8 Zordunak	2.155.727	2.158.096
9 Finantza-kontuak	1.172.533	1.797.050
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	603.040	1.874.262
Aktiboa, guztira	30.012.052	33.437.406

Pasiboa

Deskribapena	2012	2011
A Funts berekiak	27.846.266	29.720.528
1 Ondarea eta erreserbak	18.197.534	20.071.796
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	0
3 Kapitaleko diru-laguntzak	9.648.732	9.648.732
C Epe luzeko hartzekodunak	1.385.958	1.506.500
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	1.385.958	1.506.500
D Epe laburreko hartzekodunak	779.828	578.697
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	779.828	578.697
Pasiboa, guztira	30.012.052	33.437.406

V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2012An

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.447.217	1.587.612
61 Langileen gastuak	3.362.453	3.419.979	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	376.444	460.317
62 Gastu finantzarioak	33.738	31.425	72 Produktzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.786.014	1.646.209
63 Zergak	26.547	30.624	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	478.416	461.466
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	3.842.833	4.155.876			
65 Gizarte-prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	2.901.221	2.950.437
67 Transferentzia arruntak	580.166	573.524	77 Kapitalaren gaineko zergak	283.466	329.996
68 Kapital-transferentziak	0	0	78 Bestelako diru-sarrerak	13.947	220.974
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	0	1.385.858	79 Beren helbururako aplikaturiko hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	559.012	1.940.277
Guztira	7.845.738	9.597.287		7.845.738	9.597.287

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	559.012	1.940.277	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)	0	0	82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	0	81.525
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Ibitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	44.028	15.510	84 Ibitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	0	0
89 Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)	0	0	89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)	603.040	1.874.262
Guztira	603.040	1.955.787		603.040	1.955.787

VI. UDALARI ETA HAREN MENPEKO ENTE- EI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuz, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriak buruzko iruzkin eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2012ko aurrekontua 2012ko maiatzaren 30ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. A-tzerapen hori udal taldeen arteko adostasun faltari zor izan zitzaion.

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeke eta formalki onesteke dago.

- Udalak bere ibilgetuko elementuen prezioaren beharpena kontabilitatean jasotzen du; halere, 2012an ez da behar den zuzkidura egin.

- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2012ko fakturarik, 2013ko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Udalak 2012an hornitzaileei ordaintzeko erabili duen epeari buruzko azterketa eginik, ondorioztatzen da ezen, aztertutako laginari erreparatuta, arau indardunetan ezarritakoa betetzen ari dela, oro har. Ez da berandutzako interesik ordaindu legez ezarritakoa baino epe luzeagoan hornitzaileei eginiko ordainketengatik.

- Udala zenbait prozedura judizialekin sartuta dago. Horien artean, nabarmentzekoa da kirol instalazio berriak eraiki dituen enpresaren erreklamazioa, atzemandako akatsak konpontzeko obren ordezkotzeko betearazpenaren ondoriozko gastuen likidazioaren aurkakoa (0,42 milioi euroko gastuak dira); eta arkitekto baten erreklamazioa, atzemandako eraikuntza-akatsak konpontzeko obren ordezkotzeko betearazpenaren eta sortutako kalte-galeren ondoriozko gastuen likidazioaren aurkakoa (0,4 milioi euro dira). Aipatzekoa da, halaber, auzitan zegoen prezio zuzen bat, haur eskolako lokalen desjabetzetik heldutakoa; izan ere, Nafarroako Auzitegi Nagusiak 283.500 euroko prezio zuzena ezarri zuen 2013ko martxoan, gehi kasuko legezko interesa.

- Udalaren epe luzeko zorraren amortizazio-egutegia, 2012ko abenduaren 31n, honako taulan azaltzen duguna da:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehuneko	Ehuneko metatua
2013	108.373,22	8	8
2014	111.871,09	8	16
2015	114.268,54	8	24
2016-2020	596.759,95	43	67
2021-2025	454.685,44	33	100
Guztira	1.385.958	100	

Gure aholkuak:

- *Aurrekontuak indarrean den legediak ezarritako epeetan egin eta onestea, kudeaketarako oinarrizko tresna izan daitezen.*

- *Udal-ondasunen inbentarioaren eguneratze-prozesua burutzea, eguneratze eta kontabilitate-jarraipen etengabeak bideratuko dituzten prozedurak diseinatuta.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 3,36 milioi eurokoa da; hau da, 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 42 eta gastu arrunten ehuneko 43.

2011ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 0,38 handitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldaketa (%)
	2011	2012	
Goi-karguak	42.251	120.251	185
Funtzionarioak	1.351.929	1.414.542	5
Lan-kontratudun finkoak	214.416	233.080	9
Aldi baterako lan-kontratua	684.629	533.249	-22
Bestelako langileak	49.907	55.601	11
Gizarte zamak	1.004.785	1.003.770	0
1. kapitulua, guztira	3.347.917	3.360.493	0

Langile gastuen igoera txiki hori gertatu da "goi karguak" artikuluan sartu dire-lako aurreko ekitaldiko gastu batzuk, 2. kapituluaren kontabilizatzen zirenak.

2012ko ekitaldian, ez zen plantilla organikoa onetsi hizkuntza-profilak zirela eta. Hori dela eta,

2011ko plantilla organikoa luzatu zen, 64 lanpostu-ekin. 20 lanpostu hutsik daude eta beste hiru kasutan lanpostu-erreserba dago. 19 lanpostu aldi baterako kontratuekin daude beteta. Hona horri buruzko taulak:

<i>Langile-kopurua</i>	<i>Lanpostuak</i>	<i>Jardunean</i>	<i>Lanpostu hutsak</i>	<i>Betetako lanpostu hutsak.</i>
Funtzionarioak	54	36	18	17
Lan-kontratupekoak	9	7	2	2
Behin-behineko lanpostua	1	1	-	-

2012ko abenduaren 31n, 74 lagunek lan egiten dute Udalean eta haren erakunde Autonomoetan, eta era honetara banatuta zeuden:

Langileak	Udala	Gazte-Berriak	
		Patronatua	Guztira
Funtzionarioak	37	1	38
Lan-kontratudun finkoak	8		8
Aldi baterako lan-kontratudunak	26	2	28
Guztira	71	3	74

Aldi baterako langileak, funtsean, gaixotasu-nengatiko bajak, lanaldi-murrizketak, lanpostu hutsak eta abar betetzeko kontratatutakoak dira.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, pertsona kopuru bera dago. Aldea lan-araubidean datza: pertsona batean –Montepioko funtzionarioa, idazkari berria– eta lan kontratudun finko batean egin du gora eta aldi baterako bi lan kontratudunetan egin du behera.

Udalaren berariazko langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Langile-kopurua
Administrazio orokorra	4
Administrazio finantzarioa	4
Zerga-administrazioa	4
Udaltzaingoa	19
Haur Eskola	16
Ikastetxe publikoa	2
Euskara zerbitzua	1
Parkeak eta lorategiak	5
Mantentze-lanetako langileak	7
Enplegu-sustapena	0
Berdintasuna	1
Kirol instalazioak	8
Guztira	71

Hau da, udaltzaingo-zerbitzuaren eta haur eskolaren artean langile guztien ehu-neko 49 egiten dute.

Udalak honako araua onetsi zuen: “Antsoaingo Udalaren eta bere patronatuen zerbitzuko langile funtzionarioen lan-baldintzei buruzko erabakia, 2009-2012 urteetarako.” Ganbera honek Udalari buruzko txostenetan behin eta berriz adierazi duen bezala eta Udaleko kontu-hartzaileak oroitidazkietan azaldu duen bezala, hitzarmen honen 10. artikuluan arautzen den jaiegunetarako lanaren ordain ekonomikoa –funtsean udaltzaingoari eta

kirol-instalazioetako langileei aplikatu dakiokena– Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuan eta gainontzeko ordenamendu juridikoan aurreikusitakoa baino handiagoa da, bereziki jaiegun ez diren egunetako lanaldien zati bat jaiegun gisa hartzen baitu.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakitakoak dira; ordainsari horiek 2012an izoztu dira, eta egin-dako atxikipenak zuzenak dira.

Udalak ez zien bere langileei ordaindu 2012ko abenduko aparteko soldata, Au-rrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuta, baina abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean, ordaintzeko betebeharrak aitortu zuen kontzeptu hori dela eta. Be-tebehar hori 2013ko urtarrilean ordaindu zuen. Foru lege horrek, bere artikuluko bakarrean, xedatzen du 2012an Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaiela, erosahalmenaren galera dela-eta, 2012ko ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

28/2012 Foru Legeak 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAO-n argita-ratu eta bihar-munean. Horrek zalantza batzuk planteatu ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliagarritasunari buruz. Hori dela eta, “2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko”, Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordainezko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu da, Konstituzio Auzitegiak onetsia; izan ere, auzitegi horrek haren aplikazioa bertan behera utzi du 2013ko irailaren 14an.

Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judicial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egonen dela.

Egiaztatu dugu saioetara joateagatik zinegotzietatik ordaindutako kalte-ordainak izoztu egin direla 2012ko ekitaldirako.

Zinegotzietatik jasotzen dituzten ordainsariak 2011-06-30eko Osoko Bilkuran eza-rritakoak dira. Honakoak, hain zuzen:

- Alkateak bere arduetan jardunen du arduraldi eskusiboko araubidean, eta urtean 42.251 euroko ordainsari gordina jasoko du, 14 ordainketatan, Gizarte Segurantzarentzako kotizazioengatik beherapena eta PFEZaren arauzko atxikipenak aldeztu aurretik kenduta.

- Gainerako zinegotziek organo kolegiatuen bilkuretara joateagatik ordainak jasoko dituzte; hona zenbatekoak: informazio batzordeetako lehendakariak hilean 560 euro jasoko dituzte; gainerako zinegotziek hilean 355 euro jasoko dituzte.

PFEZari buruzko Legeko 14. artikuluan xedatuaren eraginetarako, ezartzen da aipatutako ordainak gastuetarako ordainsariak direla.

Horrenbestez, zinegotziek jasotzen dituzten ordain gordinak 78.000 eurokoak dira. Zenbateko hori honela banatzen da: lau zinegotzik 6.720 euro hartzen dituzte eta hamabi zinegotzik, berriz, 4.260 euro.

Gure aholkuak:

- *Plantilla organikoan sartuta dauden lanpostuak arrazoizotasunez bete diren aztertzekeko prozesua osatzea, hura benetako premietara egokitzeko delat egiazatu ahal izateko.*

- *Udalaren lan-baldintzei buruzko akordioko 10. artikulua Nafarroako Administrazio Publikoen*

Zerbitzuko Langileen Estatutuan nahiz gainerako ordenamendu juridikoan ezarritakora egokitzea, batez ere jaieguntzat hartzen denari dagokienez.

VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 3,87 milioi euro egin dute 2012ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 48 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 49 egiten dute.

2011rekin alderatuta, ehuneko 9 egin du behera; horrek 387.223 euroko zenbatekoa egiten du. Jaitsierarik handiena 22. artikuluan aurkitzen da –materiala, hornidura eta beste–, zeinak ehuneko 7 (271.322 euro) egiten baitu behera. Funtsean azaltzen da herri-jaietan honako hauetan gastua gutxitu delako: jai herrikoiak (110.446 euro), kirol jardueren kudeaketa (44.544 euro, jende gutxiago eman baitu izena) eta parke eta lorategien kudeaketa (67.711 euro; ordura arte hirugarren bati esleituta zegoen zerbitzua barneko baliabideekin egiten hasi delako).

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Mota Kontratua	Prozedura zenbatekoa	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikatutako dirukopurua	2012an betetakoa
Gazteria Elxearen kudeaketa	Laguntza	Irekia, Europako mugatik behera /eskaintzarik onuragarriena	143.000	137.455	120.470 (1)
Hiriko bideetako garbiketa	Zerbitzuen kudeaketa	Irekia, europar atalasetik gora /eskaintzarik onuragarriena	1.928.000 (2)	225.743	28.218 (3)

(1) Kontratua 2012-02-15ean hasi da; hori dela eta, 10 hilabete eta erdi bete dira 2012ko ekitaldian.

(2) 6 urteko indarraldia gehi 2 urteko luzapena biltzen dituen kontratu baterako kalkulatu den balioa da; adjudikazioaren kopurua ekitaldi baterako da.

(3) Kontratua 2012-11-15ean hasi da; hori dela eta, hilabete eta erdi bete dira 2012ko ekitaldian.

Espeditente horiei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren bitartez egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta dau-dela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia zentzuz errespetatu dela.

VI.4. TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 0,58 milioitan egin dute gora. 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 7 eta gastu arrunten ehuneko 7 egiten dute. Hona haiei buruzko xehetasunak:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa
	2011	2012	Aldaketa (%)
Udalei	0	8.555	-
Zerbitzu administratiboen batasunei	2.312	1.281	-45
Mankomunitateei	408.168	410.467	1
Familiei	17.990	21.555	20
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	140.015	132.953	-5
Beste transferentzia batzuk	5.039	5.355	6
Transferentzia arruntak	573.524	580.166	1

2011rekin alderatuz gero, gastu horiek ehuneko 1 egin dute gora.

2012an emandako diru-laguntza nagusiak mankomunitatutako zerbitzuak finantzatzekoak izan ziren; izan ere, zerbitzu horietara bideratu da kapitulu honetako gastu guztien ehuneko 71.

2008tik, Udalak ordenantza orokor bat dauka honako xedeetarako ematen diren diru-laguntzei buruz: kultura, hezkuntza, kirola, gazteria, laguntza, laguntza humanitarioa eta arlo soziala. Hala ere, 2012an, zenbait deialdi publiko egin dira kultura eta lankidetzara arloetako jarduerak egiteko.

Gainera, beste diru-laguntza batzuk ere badaude, zuzenean ematen direnak (ikastetxea, parrokiako Caritas, gutxitu fisikoaren elkarteak eta taxi-bonoa, errege-kabalgata, Olentzero, erraldiak eta kilikien konpartsa).

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, gastu horien izapidetzea egokia dela. Halere, GKE-en eskariak onartu dira, nahiz eta epeaz kanpo aurkeztu diren.

VI.5. INBERTSIOAK

2012. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (0,28 milioi) ehuneko 37 bete da, eta 0,10 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko bat.

2011rekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 88 –hau da, 0,74 milioi– egin dute behera.

Honakoak izan dira 2012an eginiko inbertsioetako gastu nagusiak:

Inbertsioa	Kopurua
Parke eta lorategietarako makineria	17.619
Haur eskolarako lokalen desjabetzea	13.928
Parkeetarako hiri altzariak	9.995
Hiriko zuhaitzak	7.817
Antzokirako ekipamendu informatikoa	7.599

Adierazi beharra dago espediente gehienak prozedura negoziatuaz izapidetu di-rela, Europar Batasunean publizitaterik egin gabe, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 73.4.e) artikuluan aurreikusitako izapideak direla eta. Eska daitezkeen izapide bakarrak dira kreditua aurrez erreserbatzea eta faktura aurkeztea.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko ekitaldian aitortutako eskubideak 7,28 milioikoak izan dira; ehuneko 100 eragiketa arruntetatik diru-sarrerari dagozkien. Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 82koa izan da.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (4,36 milioi euro-koak) eta transferentzia arruntak (2,9 milioi eurokoak) nabarmentzen dira.

Udalak ez du nabarmentzeko moduko diru-sarrerarik jaso 2012ko hirigintza-eragiketaren ondorioz.

2011. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 9 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldaketa (%)
	2011	2012	2011/2012
1. Zuzeneko zergak	2.288.065	2.317.702	1
2. Zeharkako zergak	149.606	230.194	54
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.212.572	1.821.480	-18
4. Transferentzia arruntak	2.950.437	2.901.221	-2
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	52.676	16.128	-69
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	7.653.356	7.286.726	-5
6. Inbertsioen besterentzea	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	339.425	-	-
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	339.425	-	-
8. Finantza-aktiboak	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8 eta 9)	-	-	-
Diru-sarrerak, guztira	7.992.781	7.286.726	-9

Nabarmentzekoa da 2012an kapitaleko transferentziak desagertu direla eta tasek, prezio publikoek eta bestelako diru-sarrerak ehuneko 18 egin dutela behera.

3. kapituluaren barruan, nabarmentzekoa da kirol instalazioetako erabiltzaileen kuoten kontusaila gutxi bete dela. Izan ere, 1,79 milioiko aurreikuspenak bazeuden ere, 1,02 milioi likidatu dira; hau da, ehuneko 57. Horri dagokionez, oroitidazkian esaten den bezala, 2011ko amaieran, 724 per-

tsonatan egin du behera instalazio horietako abonatuaren kopuruak. Beherakada hori justifikatzen dute bai krisi ekonomikoak, bai Berriobeitiko Udalaren instalazioek eragin duten lehia. Udala hainbat kudeaketa modu ari da aztertzen egoerari konponbidea emateko, ustiaketan oreka aurkitze aldera.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldaketa (%)
	2011	2012	2011/2012
Lurraren kontribuzioa	1.221.198	1.304.944	7
Ibilgailuak	461.466	478.416	4
Lursailen balioa handitzea	329.996	283.466	-14
JEZa	275.405	250.877	-9
EIOZa	149.606	230.194	54
Guztira	2.437.671	2.547.897	5

Aldaketa handienak eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan (EIOZa) ikusten dira, zeren eta ehuneko 54 egin baitu gora -80.000 euro, guztira-. Hala eta guztiz ere, zerga horretan aurrekontuetan jasotakoaren ehuneko 61 baizik ez da betetzen. Nabarmentzekoa da, halaber, JEZaren jaitsera, zeina enpresa-jardueraren gutxitzearen ondorioa baita.

Balorazio-ponentziaren azken eguneratzea 2011n egin da.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain/altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,1854	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga		
Gaurkotzearen koefizientea	2,8 eta 3,4 bitarte	2tik 3,8ra
Karga-tasa	12,28	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazio eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek, ia izoztu egin dira 2011. urtearekin alderatuta.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

Gure aholkuak:

- *Gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, diru-sarreraren aurrekontua egitean likidaziorako benetako aukerak kalkulatzen saiatzea.*

- *Kirol instalazioak kudeatzeko modu egokiaren buruzko azterketa-prozesua amaitzea, kontuan hartuta nolako eragina daukan udal finantzetan eta zein den egungo egoera ekonomiko orokorra.*

VI.7. HIRIGINTZA

Antsoaingo Udalak bere baliabideekin garatzen ditu hirigintza-lanak, baina hirigintza-aholkua kanpoan hatzen du, arkitekto baten eskutik, eta horrek, 2012an, 54.000 euroko gastua ekarri dio. Nabarmenezkoa da arkitekto horren kontratua 1992koa dela, eta ordutik ez dela ez eguneratzerik ez hautapen-prozedurarik egin.

Antsoaingo Udalaren Antolamendu Plana 1997an onetsi zen, eta ia erabat garatuta dago.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden pla-neamenduak homologatzeko eta moldatzeko. 2009an, Udala bere plana aztertzen hasi zen.

2012an, Udalaren Osoko Bilkurak udal plan berria eta dagokion ingurumen-eraginaren azterla-

na hasiera batez onetsi ditu, eta bi hilabetez jarri ditu jendaurrean. txosten hau idazteko egunean, gainerako izapideak egiteko daude.

Urtean zehar hirigintzako espediente bakarra izapidetu eta onetsi da. Eraikin bateko jabekideek sustatutako xehetasun-azterlan bat da.

Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondareari dagokion berariazko inbentario eta erregistrorik, nahiz eta Lurzoruaren Udal Ondaretik datozen baliabide atxikien ja-rraipena egiten duen. Horri dagokionez, adierazi beharra dago 1994tik 2012ra, Udalak, ondarearen besterentzetik eta hirigintza-aprobetxamenduetatik, 17,25 milioi hartu dituela, eta 2,24 milioiko zenbatekoa egiten duten inbertsio berrien finantzaketa aplikatzeko dagoela.

Gure aholkuak:

- *Arkitektoaren laguntza-zerbitzurako kasuko hautapen-prozesua egitea. Horri dagokionez, adierazi behar dugu 2013ko irailean zerbitzua berregituratu eta beste kontratazio bat egin dela.*

- *Hirigintza-plangintza Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzeko prozesua osatzea.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak Tafallako Udalari buruz emandako fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2013ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (21. or.).
- II. Helburua (24. or.).
- III. Norainokoa (25. or.).
- IV. 2012ko kontu orokorari buruzko iritzia (25. or.).
 - IV.1. Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorra (25. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (25. or.).
 - IV.3. 2012ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera (25. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (29. or.).

V. 2012ko kontu orokor bateratuaren laburpena (30. or.).

V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (30. or.).

V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (30. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (31. or.).

V.4. Egoera-balantze bateratua (31. or.).

V.5. Galera eta irabazien kontu bateratua (32. or.).

VI. Iruzkinak, ondorioztapenak eta aholkuak (33. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (33. or.).

VI.2. Langileak (34. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (35. or.).

VI.4. Inbertsioak (36. or.).

VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (36. or.).

VI.6. Inbentarioa/ibilgetu materiala (38. or.).

VI.7. Hirigintza (38. or.).

VI.8. "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." sozietatea (38. or.).

I. eranskina: 2012ko kontu orokorraren oroitidazkia

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:


www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, 2013ko ekitaldiko jarduketa-programari jarraituz, Tafallako Udalaren 2012ko Kontu Orokorren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Udalerrak 98,3 km² dauzka, eta, 2012ko erroldaren arabera, 11.256 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako grafiko honetan ikusten da:



Erakunde horien datu ekonomiko nagusiak 2012ko ekitaldiaren amaieran honako hauek ziren:

- Administrazio Publikoaren arloa: Tafallako Udalak hiru erakunde autonomo ditu zerbitzu publikoak eskaintzeko: Udal Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua. 2012ko abenduaren 31n honako kopuru hauek agertzen dituzte:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2012-12-31n
Udala	12.567.126	12.916.861	161
Udal Musika Eskola	461.081	253.758	17
Kultura Patronatua	422.642	46.155	5
Kirol Patronatua	321.537	96.342	11
Guztira	13.772.386	13.313.116	194

Oharra: 2012ko abenduaren 31ko langileen artean, tailer-eskolakoak diren behin-behineko 18 langile daude (2011n, 26 ziren), eta beste 14 gizarte enplegutik heldu direnak.

Udalak 2012an bere erakunde autonomoi egin dien ekarpena 809.005 eurokoa izan da (Udal Musika Eskola, 207.323 euro; Kultura Patronatua, 376.486 euro, eta Kirol Patronatua, 225.196 euro).

- Enpresa Publikoen Sektorea. 2001ean, Tafallako Udalak "Ciudad Deportiva Tafalla S.A." (CD-

TSA) pertsona bakarreko sozietatea eratu zuen kirol-hiria eraiki eta kudeatzeko, eta Udala bera da bertako akziodun bakarra. Ez du langile bere-kirik, eta lehiaketa publiko bidez esleituta dauzka kirol-instalazioen kudeaketa eta taberna-kafetegiaren ustiapena. 2012an datu ekonomiko hauek ditu (eurotan):

Enpresa publikoa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak, 2012-XII-31n
Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.	89.671	352.540	(262.869)	-

2011ra arte, definitzeko zegoen "Hospital de Nuestra Señora de Caridad" era-kundearen izaera juridikoa, alegia, erakunde publiko ala pribatua zen. Erakunde horren xedea da zaharren egoitza kudeatzea. 2012an entitate pribatu gisa definitu da.

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Mairagako Mankomunitatea, zeinaren bidez ematen baititu uraren ziklo inte-gralaren zerbitzuak eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua.

- Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatea, gazteen kirol-jarduerak nahiz gizarte eta kulturaren arlokoak egiteko.

- Tafallako eskualdeko gizarte-zerbitzuen Udaltarteko Elkartea.

Halaber, Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoan, eskualdeko Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan (ORVE) parte hartzen du.

Udal honek eskaintzen dituen zerbitzu nagusiak hauek dira, zerbitzu horiek eskaintzeko moduaren arabera:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autonomoa	Mankomunitate a	Emakid a	Zerbitzuaren kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	x				
Udaltzaingoa	x				
Musika eskola		x			
Hirigintza	x				
Ur-homidura			x		
Hiri-hondakinak			x		
Kale garbiketa					x
Udal hilerria	x				
Euskararen udal-zerbitzua	x				
Ikastetxeen mantentzea	x				
Ludoteka	x				
Kontsumitzailea artatzeko	x				
San Sebastián Gizarte Etxea	x				
Gizarte Zerbitzuak	x				
Etxeko laguntza	x				
Liburutegia		x			
Kultur Etxea		x			
Babestutako enplegu soziala	x				
Berdintasuna	x				
Gazteen Etxea	x				
Hernitarren Arretarako Bulegoa	x				
Errolda	x				
Hiritarren Partaidetza	x				
Diru-bilketa	x				
Diru-bilketa exekutiboa	x				x
Futbol-zelaiak	x	x			
Tafallako kirol-hiria				x	
Ereta kirol-komplexua		x			
Zidacos pilotalekua	x				
Patinatzeko pista	x				
Teniseko pistak		x			
Musika eskola		x			
Lantegi-eskolak	x				

Toki entitateari 2012ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Orokorrak Nafarroako toki entitateetan aplikatzekoa dena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko uztailaren 2ko 11/2004 Foru Legea.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako estatuko funtsa sortu zuena.

Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, arubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, Nafarroako toki adminis-traziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak, dira.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finan-tza-iraunkortasunari buruzkoa.

Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzkoa.

Ekainaren 29ko 2/2012 Legea, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruz-koa.

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalenaren galera dela-eta.

Martxoaren 14ko 3/2012 Foru Legea, 2009-2012 Eperako Toki Inbertsioen Pla-nari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legea aldatu eta haren indarraldia luza-tzen duena.

Abenduaren 21eko 246/2011 Foru Dekretua, Kontratuei buruzko Foru Legearen Europar Bata-suneko atalaseak eguneratzen dituena.

- Berriazko araubidea.

2012ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

Tributuak arautzen dituzten ordenantzak.

Diru-laguntzak emateari buruzko oinarri arau-tzaileak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau ere barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren kontu orokor-ri buruz dugun iritzia. Bosgarrenean, kontu oro-korren laburpena ageri da, Udalaren egoera-orri finantzario nagusiekin. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo. Horrez gainera, "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." sozietatearen kontuei buruzko hainbat iruzkin jasotzen dira.

Halaber, eranskin batean sartu da Udalak 2012ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tafallako Udaleko eta haren mendeko era-kunde autonomoetako langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztai-laren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokor-rraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Tafallako Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza era-kusten duen garrantziko alderdi guztiei dagokienez, hots, ondareari, gastu eta diru-sareren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokie-nez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finan-tzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Aplikagarri zaion legedia zer neurritan bete-tzen den Tafallako Udalak eta haren mendeko era-kunde autonomoek 2012an aurrera izandako jar-dueran.

- Tafallako Udalaren eta haren mendeko era-kunde autonomoen 2012ko aben-duaren 31ko finantza-egoera zein den.

- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2011ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko enteek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Tafallako Udalaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren eta bere erakunde autonomoen kontua (Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua): Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaizta, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- “Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” udal sozietatearen urteko kontua. Sozietate horren kapital osoa Udalarena da.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, egoera-orri bateratuak (Udala eta erakunde autonomoak), zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

Ez dira aurkezten kapital guztia Udalarena den sozietatearen egoera-orri bateratuak.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta bere erakunde autonomoari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoerorrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nagusiak.

“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” merkataritza-sozietateari dagokionez, haren urteko kontuez kontu-hartzaileak, finantzaketa kontrolatzeko duen eginkizuna betez, egindako berrikusketa-txostena aztertzea izan da egin dugun lana.

IV. 2012ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoaren arabera, Tafallako Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2012ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardura, baita bere edukia-rena ere, Udalarena da, eta txosten honen V. atalean laburbilduta jasota dago.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzia ondorioztatatu dugu:

IV.1. UDALAREN 2012ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Ondasunen inbentarioa 1993koa da, eta eguneratu gabe dago oraindik; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren kontabilitate-saldoaren arrazoizotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2012ko abenduaren 31n, 40,9 milioi eurokoa zen.

- Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen montepioetako betebeharrak aktuarialak, montepio hori, lanean diharduen langile berririk sartzen ez denez, iraungitze-prozesuan badago ere. Abenduaren 31n, 47 pertsona zeuden pentsioak jasotzen zituztenak eta 17 pertsona jardunean zeudenak. Udalaren zerbitzu ekonomikoen ustez, montepioaren tamaina zein den ikusita, ez dago zertan azterlan aktuarialik egin.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioak alde batera utzita, Udalaren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio jasotzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2012ko ekitaldian Udala-ren eta haren erakunde autonomoen jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezketasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

IV.3. 2012ko ABENDUAREN 31ko EKONOMIA-ETA FINANTZA-EGOERA

2012ko aurrekontu bateratua Alkatetzaren 2012ko urtarrilaren 2ko ebazpen batez luzatu zen. Ekitaldian zehar, ez da beste aurrekonturik onetsi.

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 10,6 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; kopuru horri 5,4 milioi euro gehitu zaizkio aurrekontu-aldaketan bitartez. Horrekin guztiaren, behin betiko aurrekontua osatu da, 16 milioi eurokoa.

Aitortutako betebeharrak 13,8 milioi eurokoak dira, eta aitortutako eskubideak, berriz, 13,3 milioi eurokoak. Horrek esan nahi du aurrekontu bateratuaren betetze-maila ehuneko 86 dela gastuetarako eta ehuneko 83koa, berriz, diru-sarretarako.

Gastuetan, batez besteko betetze-maila baino apalagoa ageri da inbertsioen kapituluan –ehuneko 83– eta transferentzia arruntenean –ehuneko 83–. Inbertsioetan, 5 milioiko aurreikuspena zegoen arren, 4,2 milioi bete dira. Oroitidazkian esaten da ezen, kontuan hartuta betetako obretan izan den aurrekia, betetzea ehuneko 88koa izan dela.

Aitortutako eskubideen kasuan, betetze-gradu txikiagoaren –ehuneko 61ekoa– arrazoiak kapital-transferentziak izan dira.

Gastuen izaerari begiratzuz gero, gastu arruntek eta kapital- eta finantza-gastuek, gastu guztien ehuneko 66 eta ehuneko 34 egiten dute, hurrenez hurren. Finantza-zama gastu osoaren ehuneko 5 da.

Diru-sarrera arruntak gutzizkoaren ehuneko 75 dira (2011n, ehuneko 73 ziren); diru-sarretan ehuneko 52 jasotako transferentzietatik heldu dira (2011n, ehuneko 56 ziren). Zorpetze bidezko diru-sarrerak, diru-sarrera guztien ehuneko 5 dira.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Kopurua	Finantzaketa-iturria	Kopurua
Langileak	44	Tributu bidezko diru-sarrerak	38
Bestelako gastu arruntak	21	Transferentziak	52
Inbertsioak	30	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	5
Finantza-zama	5	Zorduntzea	5
Guztira	100		100

Hona Udalaren 2012rako aurrekontuaren bete-tzeari buruzko adierazleak eta 2011z geroko bila-kaera:

	2012	2011
Aitortutako betebeharrak, guztira	13.772.386	14.744.213
Likidatutako eskubideak, guztira	13.313.116	14.141.397
Gastuen exekuzioa, %	85,98%	76,92%
diru-sarreraren betetzea, %	83,04%	73,76%
Ordainketak (%)	89,15%	92,63%
Kobratutakoa (%)	90,42%	89,25%
Gastu arruntak (1etik 4ra)	9.028.830	9.587.794
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	8.883.201	9.469.991
Kapital-gastuak (6 eta 7)	4.203.117	4.537.764
Finantza-eragiketen gastuak (8 eta 9)	540.438	618.655
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	10.019.713	10.366.567
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	5.061.137	5.088.916
Kapitaleko diru-sarrerak (6 eta 7)	2.594.803	3.154.731
Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8 eta 9)	698.600	620.100
Diru-laguntzen menpekotasunak, %	52,30%	56,36%
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak	56,06%	53,08%
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-617.432	-604.261
Aurrekontu-emaizta doitua	-12.492	-526.851
Aurrezki gordina	1.136.512	896.577
Finantza-zama (3tik 9ra)	686.068	736.458
Aurrezki garbia	450.444	160.119
Zorpetze-maila, %	6,85%	7,10%
Zorpetze-muga, %	11,34%	8,65%
Zorpetze-ahalmena, %	4,49%	1,55%
Diruzaintzako gerakina, guztira	150.665	780.759
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	92.232	331.550
Zor bizia	5.446.271	5.288.110
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia, %	54,36%	51,0%
Zor bizia biztanleko	484	464
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	4,79	5,90

Tafallako Udalak, 2012an aurreko ekitaldian baino ehuneko 6,6 gutxiago gastatu du (0,9 milioi euro gutxiago); horren arrazoia izan da, funtsean, langile-gastuek 0,5 milioi eurotan behera egin dutela eta inbertsioetan, berriz, 0,34 milioi gutxiago gastatu direla. Bestalde, diru-sarrerak aurreko ekitaldian baino ehuneko 5,86 txikiagoak izan dira, hau da, 0,8 milioi txikiagoak. Jaitsiera horren arrazoia da inbertsioei lotutako kapital-transferentziek asko egin dutela behera, zeren eta 2011n 3 milioikoak izatetik 2012an 2,4 milioikoak izatera pasa baitira; eta transferentzia arruntek ere behera egin dute: 2011n 4,9 milioi eurokoak izatetik 2012an 4,5 milioi eurokoak izatera.

Izaera arrunteko gastuek ehuneko 5,8 egin dute behera, funtsean ondasun arrutetan eta

zerbitzuetan gutxiago gastatu delako (ehuneko 5 egin dute behera); langile-gastuek ere ehuneko 7,7 egin dute behera. Diru-sarrerak, berriz, ehuneko 3,3 jaitsi dira, batez ere transferentzia arruntek behera egin dutelako.

Saldo ez-finantzarioa (diru-sarrerak ken gastu ez-finantzarioa) 0,6 milioi negatiboa da, aurreko ekitaldikoaren bide beretik.

Aurrekontu-emaizta doitua 12.492 euro negati-boa da. Haren balio negatiboak behera egin du, zeren eta 2011koa 526.851 euro negatiboa izan baitzen.

Bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak positiboak izaten jarraitzen dute; izan ere, ehune-ko 27 eta 181 egin dute gora, hurrenez hurren.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 6,85ekoa da, eta ehuneko 11,34ko muga du; horren ondorioz, zorpetze berri baterako ahalmen ekonomiko pixka bat badu oraindik.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina edo hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko ahalmena neurtzen duen adierazlea positiboa izan zen: 92.231 euro (2011n izan zena baino ehuneko 72 gutxiago).

Epe luzerako zorra 5,44 milioi eurokoa da, 2011n zegoenaren ia berdin-berdina; zor hori –biztanle bakoitzeko 484 euroraino iristen dena– Udalaren diru-sarrerara arrunten ehuneko 54 da, legeak gaur egun zor gehiago egiteko jartzen duen muga, ehuneko 75eko portzentaje-muga, baino txikiagoa. 2012an lortutako aurrezki gordinaz baliatuz, 4,8 urte beharko lirateke Udalak gaur egun duen zorrari aurre egiteko.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2012ra arte, eurotan:

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Langile-gastuak	5.608.948	5.604.907	6.308.694	6.419.826	6.587.705	6.559.472	6.053.268
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	2.460.535	2.633.635	2.801.473	2.882.232	2.851.509	2.629.306	2.497.212
3. Finantza-gastuak	284.427	344.796	346.619	235.779	94.403	117.803	145.629
4. Transferentzia arruntak	442.834	498.782	485.901	377.634	358.823	281.212	332.720
6. Inbertsio errealak	457.295	3.044.115	5.018.955	12.182.688	6.811.003	4.537.764	4.197.117
7. Kapital-transferentziak	50.000	551.083	1.768.698	93.400	35.954	0	6.000
8. Finantza-aktiboak	0	48.000	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	660.928	703.061	624.400	675.574	619.914	618.655	540.438
Guztira	9.964.967	13.428.380	17.354.740	22.867.133	17.359.311	14.744.213	13.772.386

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Zuzeneko zergak	2.626.797	2.639.421	2.843.728	3.093.026	2.969.916	3.033.857	3.104.311
2. Zeharkako zergak	417.273	640.837	664.037	471.422	962.413	395.350	531.657
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.199.462	1.708.511	1.683.117	1.887.818	1.542.372	1.659.709	1.425.168
4. Transferentzia arruntak	4.230.434	4.466.033	5.052.917	5.091.660	5.198.166	4.920.909	4.543.324
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	412.103	307.534	335.699	399.121	418.274	356.742	415.252
6. Inbertsio errealak besterentzea	491.087	927.919	4.039.219	2.852.658	701.957	106.082	176.272
7. Kapital-transferentziak	1.797.531	1.310.054	4.076.988	9.805.858	6.176.907	3.048.648	2.418.531
9. Finantza-pasiboak				48.000		620.100	698.600
Guztira	11.174.687	12.000.310	18.695.705	23.649.563	17.970.004	14.141.398	13.313.116

Taulako datuetatik ondorioztatzen den bezala, Tafallako gastuek nabarmen egin dute gora 2009ra arte, batez ere inbertsioek gora egitearen ondorioz; izan ere, aurten 12 milioi euro egiten dute inbertsioek. Urte horretatik aurrera, behera egiten dute, 2012an 2007ko maila berean gelditzeraino.

Diru-sarrerari dagokienez, joera antzekoa izan da. Nabarmenezkoa da kapital bidezko transferentzien ondoriozko diru-sarrerak kopuru adierazgarria zutela 2009an.

Laburtuz, bada, Tafallako Udalak 2012an duen finantza-egoera arrazoizkoak diren muga batzuen barruan dago; baina, egoera horren adierazle

nagusien bilakaera ikusita ondorioz atera daitekeen bezala, krisi ekonomikoaren ondorioak noztzen ari da. Finantza-egoera arrazoizkoa izate horren arrazoi nagusia da gastu arruntak (batez ere, langile gastuak) gutxitu izana eta, batez ere, inbertsioak gutxitu izana; diru-sarrerari dagokienez, inbertsioei atxikitako transferentziak eta transferentzia arruntak nabarmen gutxitu dira.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa ber-matzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak betetzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak bi informazio-ohar eman ditu, horietatik bi 2013an, egonkortasunari buruzko araudiaren alderdi zehatz batzuk garatze aldera.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren betetzea kalkulatu da toki korporazioei egokitutako kontabilitate nazionalaren defizita kalkulatzeko eskuliburua aplikatuz –eskuliburu hori Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailtza Nagusiak egindakoa da–. Emaizta hurrengo taulan azaltzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
I. kapitulutik VII. kapitulura bitarteko gastuak, guztira	13.231.947
I. kapitulutik VII. kapitulura bitarteko diru-sarrerak, guztira	12.614.516
Aurrekontu-emaizta ez-finantzarioa	-617.432
Zerga bidezko doikuntza	166.762
Finantzazioaren beharra	-784.194

Horrenbestez, ikusten da Tafallako Udalak ez dituela aurrekontu-egonkortasunari buruzko baldintzak betetzen, baina bai finantza-iraukortasunari buruzkoak, zeren eta zorra ezarritako muga baino txikiagoa baita. Nabarmendu beharra dago beharrian horiek diruzaintzagerakinarekin finantzatzen direla eta ekitaldian aurrezki positibo garbi bat izan dela.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen egoera, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Egoera honetan, hain zuzen, hona-

koek izan behar dute oinarrizko premisa, herritarren oinarrizko premiei erantzungo dien kudeaketa publiko bat izateko: aurrekontuak planifikatzerakoan eta betetzerakoan zorrotz jokatzeko, udalaren gastuen eta diru-sarreraren politika eta udalaren beraren antolamendua sistematikoki eta etengabe berrikustea, lehentasuna eman behar zaien eremuak edota kudeaketa hobetu daitekeen eremuak zein diren ezagutzeko, eta diru publikoak erabiltzerakoan zorrotzki eta gardentasunez jokatzeko.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez –2011ko ekitaldiari buruzkoa da– kudeaketa-gomendio hauek bete diren edo betetzeko bidean dauden adieraziko dugu:

- *Udal planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen zehaztapenetara egokitzea.*

- *“Hospital de Nuestra Señora de la Caridad” erakundearen izaera juridikoa definitzea. 2012an, aipatutako erakundearen izaera juridikoa entitate pribatu gisa definitu da.*

- *Kirol hiria eraiki den lurra “Ciudad Deportiva de Tafalla, S.A.” udal sozietateari atxiki zaizkio, 2012ko abenduaren 18an egindako osoko bilkuran.*

Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *Aurrekontua onesteari buruz indarrean dauden legeetan ezarritako epeak betetzea.*

- *1993ko udal inbentarioa gaurkotzea, altak eta bajak kontrolatzeko sistema bat ezarritik.*

V. 2012ko KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA**

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Langile-gastuak	5.608.948	5.604.907	6.308.694	6.419.826	6.587.705	6.559.472	6.053.268
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	2.460.535	2.633.635	2.801.473	2.882.232	2.851.509	2.629.306	2.497.212
3. Finantza-gastuak	284.427	344.796	346.619	235.779	94.403	117.803	145.629
4. Transferentzia arruntak	442.834	498.782	485.901	377.634	358.823	281.212	332.720
6. Inbertsio errealak	457.295	3.044.115	5.018.955	12.182.688	6.811.003	4.537.764	4.197.117
7. Kapital-transferentziak	50.000	551.083	1.768.698	93.400	35.954	0	6.000
8. Finantza-aktiboak	0	48.000	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	660.928	703.061	624.400	675.574	619.914	618.655	540.438
Guztira	9.964.967	13.428.380	17.354.740	22.867.133	17.359.311	14.744.213	13.772.386

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
1. Zuzeneko zergak	2.626.797	2.639.421	2.843.728	3.093.026	2.969.916	3.033.857	3.104.311
2. Zeharkako zergak	417.273	640.837	664.037	471.422	962.413	395.350	531.657
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.199.462	1.708.511	1.683.117	1.887.818	1.542.372	1.659.709	1.425.168
4. Transferentzia arruntak	4.230.434	4.466.033	5.052.917	5.091.660	5.198.166	4.920.909	4.543.324
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	412.103	307.534	335.699	399.121	418.274	356.742	415.252
6. Inbertsio errealak besterentzea	491.087	927.919	4.039.219	2.852.658	701.957	106.082	176.272
7. Kapital-transferentziak	1.797.531	1.310.054	4.076.988	9.805.858	6.176.907	3.048.648	2.418.531
9. Finantza-pasiboak				48.000		620.100	698.600
Guztira	11.174.687	12.000.310	18.695.705	23.649.563	17.970.004	14.141.398	13.313.116

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	13.313.116	14.141.397
- Aitortutako betebeharrak	-13.772.386	-14.744.213
= Aurrekontuaren emaitza	-459.270	-602.816
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-58.433	-307.134
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	445.558	383.099
+ Diruzaintzako gerakin likidoaz finantzaturiko gastuak	59.654	-
= Aurrekontuaren emaitza doituia	-12.492	-526.851

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	1.578.220	2.069.799
(+) Gastuen Sarrerak: aurtengo ekitaldia	1.291.722	1.489.796
(+) Gastuen Sarrerak: ibitako ekitaldiak	1.327.995	1.319.013
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	26.569	24.651
+ Ordainketen itzulketak	260	230
- Bilketa zaileko eskubideak	-895.139	-755.328
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-173.188	-8.563
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.837.487	1.500.279
(+) Gastuen Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.494.179	1.086.435
+ Gastuen aurrekontua: ibitako ekitaldiak	32.180	32.180
+ Diru-sarreraren itzulketak	16.670	949
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	294.558	381.265
- Aplikatzeko dauden gastuak	-100	-550
+ Diruzaintzako funts likidoak	409.931	211.239
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	-	-
Diruzaintzako gerakina, guztira	150.665	780.759
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	58.433	449.210
Diruzaintza-gerakina, abxikitako gastuak direla-eta	-	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	92.231	331.549

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Jardunean

Deskribapena	2012	2011
A Ibilgetua	40.891.432	37.595.751
1 Ibilgetu materiala	24.509.769	21.555.652
2 Ibilgetu ez-materiala	1.674.506	1.674.506
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	0
4 Herri-ondasunak	1.738.605	1.082.874
5 Ibilgetu finantzarioa	12.968.553	13.282.719
C Zirkulatzaila	3.056.578	3.045.479
7 Izakinak	0	0
8 Zordunak	2.646.547	2.833.690
9 Finantza-kontuak	410.031	211.789
Aktiboa, guztira	43.948.010	40.641.230

Pasiboa

Deskribapena	2012	2011
A Funts berekiak	36.490.965	33.843.729
1 Ondarea eta erreserbak	9.267.544	9.251.309
2 Ekitaldi emaitza ekonomikoak (etekina)	645.127	427.233
3 Kapitaleko diru-laguntzak	26.578.294	24.165.187
C Epe luzeko hartzekodunak	5.446.271	5.288.110
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	5.446.271	5.288.110
D Epe laburreko hartzekodunak	2.010.774	1.509.391
5 Ibitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	1.837.587	1.500.829
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzak	173.188	8.562
Pasiboa, guztira	43.948.010	40.641.230

V.5. GALERA ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
3 Hasierako izakinak	-	-	3 Bukaerako erosketak	-	-
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	-	-	70 Salmentak	822.526	925.622
61 Langileen gastuak	5.182.656	5.697.154	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	947.657	972.886
62 Finantza-gastuak	145.629	117.803	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	2.912.648	2.724.750
63 Zergak	-	-	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	567.992	551.098
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	2.483.234	2.613.574	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-
65 Gizarte-prestazioak	884.590	878.050	76 Transferentzia arruntak	4.543.324	4.920.909
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	-	-	77 Kapitalaren gaineko zergak	155.328	153.359
67 Transferentzia arruntak	332.720	281.212	78 Bestelako diru-sarrerak	75.660	305.751
68 Kapital-transferentziak	6.000	-14.925	79 Beren helbururako aplikaturiko hornikuntzak	-	-
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	314.166	339.624	Ustiatzeagatikoko galerak	-	-
Ustiapen-mozkina	676.140	641.881			
Guztira	10.025.135	10.554.374	Guztira	10.025.135	10.554.374

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2012	2011	Deskribapena	2012	2011
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	-	-	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	676.140	641.881
82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo zorduna)	-	-	82 Ohiz kanpoko emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	-	-	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	-	-
84 Aldak. Ixhitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	31.013	214.648	84 Ixhitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo)	-	-
89 Etekin garbia guztira	645.127	427.233	89 Galera garbia, guztira	-	-
Guztira	676.140	642.063	Guztira	676.140	641.881

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA AHOLKUAK

Ondoren, kudeaketaren arlo esanguratsuenen arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak eta haren mendeko erakundeek beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzketen neurriei buruzko ondorio, iruzkin eta aholku nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- 2012ko aurrekontua ez da onetsi. Hori dela eta, Udalak 2012an aurrekontu luzatuarekin jardundu.

- Kontu orokorrak ez ditu jasotzen eranskin gisa Udalak kapital guztia berea duen sozietatearen egoera-orri bateratuak.

- 2013ko ekainaren 25eko Osoko Bilkurak ez zituen udalaren kontuak onetsi. Proposamenari buruzko bozketan zazpi boto alde, bederatzia aurka eta abstentzio bat izan ziren.

- Gaur egungo egoera ekonomikoan, aurrekontuak ahalik eta egokien planifikatzeko, ahalik eta zehatzen ezagutu behar da, gure iritzian, udal funtzionarioen montepioko pentsio-sistematik heldu diren betebeharren gaur egungo balioa. Jakin beharra dago, nolana ere, montepio hori iraungitzen ari dela, ez delako bertan sartzen lanean diharduen langile berririk.

- Ez da ikusi 2012koak izan eta 2013an kontabilizatutako kantitate handiko fakturarik.

- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, 2012ko abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko koadro honetan agertzen dena da (eurotan):

Ekitaldia	Amortizazioa	%	Metatutakoa (%)
2013	601.995	11,1	11,1
2014	544.534	10,0	21,1
2015	405.035	7,4	28,5
2016	405.035	7,4	35,9
2017-2021	2.025.173	37,2	73,1
2022-2032	1.464.500	26,9	100
Guztira	5.446.271	100	

- Udalak aurkeztutako oroitidazkiak ingurumena babestu eta hobetzeko eta klima-aldaketa samurtzeko edota horretara egokitzeko neurriei buruzko atal bat erantsi du.

- Ospitaleak 140.000 euroko mailegu bat jaso du, 10 urtetan ordaintzekoa, Udalaren "comfort letters" batekin bermatua.

- Udalak zenbait prozedura judizialean dago sartuta; horietan, beren zenbateko ekonomiko dela-eta, hauek dira aipagarrienak:

a) 12-4672 gora jotzeko errekurtsua, zeinaren bidez Udalarari 54.486 euroko kalte-ordain bat erreklamatzeko baitzaio.

b) 311/2012 prozedura arrunta (administrazio-errekiko auzi-errekurtsua), EIOZa-ren behin betiko likidazioa dela eta. 217.000 euro egiten du.

Gure aholkuak:

- *Udalaren aurrekontuak indarrean dagoen legedian ezarritako epeetan onestea.*

- *Burututako jardueren irudi zehatza osatzeko asmoz, partaidetza osoa Udalarena duen bere sozietatearekin duen balantze bateratuaren egoera kontu orokorrean aurkeztea.*

- *Udal funtzionarioen montepiotik eratorritako betebeharrak aktuarialak zenbatetzea eta haiek balantzean erregistratzea.*

- *Emandako "comfort letters"ei buruzko informazioa oroitidazkian jasotzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastu bateratua 6 milioi eurokoa da; hau da, 2012an sortutako gastu guztien ehuneko 44 eta gastu arrunten ehuneko 67.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu horrek ehuneko 7,7 egin du behera, ondoko koadroan erakusten den bezala (eurotan):

Langileria-gastuak	2012	2011	2012-2011 aldea (%)
Goi-karguak	93.953	108.528	-13,43
Funtzionarioak	1.553.957	1.747.878	-11,09
Lan-kontratudun finkoak	761.987	779.898	-2,30
Aldi baterako lan-kontratua	1.496.701	1.702.468	-12,09
Gizarte zamak	2.146.671	2.220.701	-3,33
1. kapitulua, guztira	6.053.269	6.559.473	-7,72

Udalaren Osoko Bilkurak 2011ko plantilla organikoa onetsi zuen. 184 lanpostu dauzka. 2012an zehar ez da ekitaldi horretako plantilla organikoa onetsi, baina aurreko urtekoaren aldaketa batzuk egin dira. 2012-12-31n 175 lanpostu daude guztira.

2012ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 194 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Musika eskola	Kultura Patronatua	Kirol Patronatua	Guztira
Kanpokoak – lizendapen librea	1	-	-	-	1
Funtzionarioak	33	3	2	1	39
Lan-kontratudun finkoak	16	6	3	-	25
Aldi baterako lan-kontratudunak	111	8	-	10	129
Guztira	161	17	5	11	194

Aldi baterako langileen barruan, gizarte enplegu babestua duten 14 langile daude, lantegi-eskolako 18 langile eta gizarteratze errenta jasotzen duten 31 langile daude.

2011ko ekitaldian, 8 langile gehiago daude. Hona funtsezko arrazoiak: gizarteratze errenta dutenen kopuruak 31 langiletan egin du gora; zerbitzu terapeutikoan 4 langile gutxiago daude (Nafarroako Gobernuari laga zaizkio); parke eta lorategietan 4 langile gutxiago; lantegi eskolan 8 langile gutxiago, eta haur eskolan 4 langile gutxiago.

Udalaren berariazko langileak -161- honako arloei daude atxikiak:

Áreas	Número
Administración General	12
Policía Municipal	21
Urbanismo	5
Brigada Obras	9
Parques y Jardines	1
Área Económica	6
Servicio Social Base	3
Asistencia a domicilio	11
Juventud	4
Escuela Infantil	14
Resto servicios	12
Empleo Social Protegido	14
Escuela Taller	18
Renta inclusión social	31
Total	161

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakita-koak direla eta egindako atxikipeak zuzenak direla. 2012ko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

Udalak ez zien bere langileei ordaindu 2012ko abenduko aparteko soldata, Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuta, baina abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean, ordaintzeko betebeharrak aitortu zuen kontzeptu hori dela eta. Be-tebehar hori 2013ko urtarrilean ordaindu zuen. Foru lege horrek, bere artikulua bakarrean, xedatzen du 2012an Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaiela, erosalmenaren galera dela-eta, 2012ko ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

28/2012 Foru Legeak 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAOn argitaratu eta biharamunean. Horrek zalantza batzuk planteatu ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliaagarritasunari buruz. Hori dela eta, "2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko", Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordainezko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu zen, Konstituzio Auzitegiak onetsia; izan ere, auzitegi horrek haren aplikazioa bertan behera utzi zuen 2013ko irailaren 14an.

Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judicial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egonen dela.

2012an pentsioren bat jasotzen duten udaleko Montepioko langile kopurua 47 pertsonako da, eta 0,78 milioi euroko gastu garbia izan da kontzeptu honetan.

Bestalde, hautetsien ordainketak egiaztatu dira, 2012an sortutakoak, osoko bil-kuretara joatearen kontzeptuari dagozkionak.

Ordain horiek erregulatzen dituen araudiak honakoa xedatzen du:

- Alkateak arduraldi eskusiboz jarduten du bere karguan. Urteko ordainsari gordina 35.630 eurokoa izanen da, 14 hileko ordainketatan ordaindua.

- Gainerako zinegotziek 323 euroko ordain ekonomiko bat jasoko dute osoko bilkuretara egiazki joateagatik; hilean gehienez osoko bilkura bat eta 323 euro ko-bratuko dituzte.

Araudi horren arabera, zinegotziek 2012an guztira jasotako ordaina 59.620 eurokoa da, eta ez da aurkitu Udalaren barne araudiaren ez-betezkerik.

Montepioari dagokionez, adierazi beharra dago 2012ko abenduaren 31n 47 pentsiodun zeudela, honako banaketarekin: 23k erretiroko pentsioa jasotzen zuten; 18k alarguntasun-pentsioa, eta 6k zurtasun-pentsioa. Jardunean daudenak 17 pertsona dira.

Montepioaren tamaina dela eta hartan funtzionario berriak sartzen ez direnez, zerbitzu ekonomikoek ez dute jotzen beharrezkoa denik azterlan aktuarialik egitea.

Gomendatzen dugu plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.

VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan eginiko gastuak 2,5 milioi eurota-raino iritsi dira 2012ko ekitaldian. Kopuru horretatik, Udalari 2 milioi dagozkio, Kultura Patronatuari 276.260 euro, Kirol Patronatuari 131.954 euro, eta Musika Eskolari 26.618 euro.

Gastuak ekitaldiko gastu guztien ehuneko 18 hartzen du, eta eragiketa arruntten gastuen ehuneko 27,6. 2011. urtearen aldean, ehuneko 5 jaitسي dira.

2012ko ekitaldian esleitutako honako kontratazio-espediten hau aurkitu dugu (zenbatekoak BEZa barne):

	Kontratu-mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa	Betetako zenbatekoa 2012
Zaharren egoitzarako eta etxez etxeko laguntza zerbitzurako elikagai-hornidura	Hornidurak	Irekia	115.864	3	115.864	46.099

Espediente honi eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren ondorioz, behar diren fakturekin justifikatuta daudela eta egokiro kontabilizatu direla egiaztatu da, baina hobetzeko moduko alderdi hauek ere ikusi dira:

- Zerbitzu batzuek 2012an izan duten gastu-bolumenari eutsiz gero, beharrez-koa izanen litzateke zenbatekoari egokitutako kontratazio-prozedura bat.

- Ganbera honek behin eta berriro adierazi duen bezala, kale-argiteria berrikusteko eta mantentzeko zerbitzua kontratatzeko prozedura egin gabe dago oraindik; zerbitzu horren gastua 41.995 eurokoa izan da 2011n.

Gure aholkuak:

- *Kontratazio espedienteak izapidetzea kontraturako kalkulatu den zenbatekoaren arabera.*

- *Argiteria publikoa berrikusteko eta mantentzeko zerbitzurako behar den kontratazio-prozedura egitea.*

VI.4. INBERTSIOAK

2012rako inbertsio-aurrekontu bateratuan aurreikusitako inbertsioen –5,1 milioi euro– ehuneko 83 gauzatu dira –4,2 milioi euro–. Gastu horrek ekitaldian aitortu-tako betebeharren guztizkoaren ehuneko 30 hartzen du. Ia inbertsio guztiak Udalak egin ditu.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, inbertsioetan egindako gastua ehuneko 8 gu-txitu da.

Inbertsioen kapituluko gastu-lagin bat eta 2012an esleitutako kontratazio-espediente hau aztertu da (BEZa barne):

Deskribapena	Kontratu-mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin	Adjudikazioaren zenbatekoa	2012an betetako zenbatekoa
Hilerriko horma beritzea	Obrak	Irekia, European publizitaterik egin gabe / eskaintzarik onena	167.982	2	167.982	-

Eginiko azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espedienteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizaturiko gastuak arrazoizkoak direla.

VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuen zenbatekoa 13,31 milioikoa izan da; horietatik, Udalari 12,9 milioi dagozkio, Musika Eskolari 253.758 euro, eta Kultura eta Kirol Patronatuei, 46.155 eta 96.342 euro, hurrenez hurren.

Ehuneko 75 eragiketa arrunten bidezko diru-sarrerak dira, eta gainerakoa kapital-eragiketen bidezkoak.

Eragiketa arrunten artean tributu bidezko diru-sarrerak –5,1 milioi euro– eta transferentzia arruntak –4,5 milioi euro– nabarmentzen dira. Kapital-eragiketen artean, jasotako kapital-transferentzien kapitulua –2,4 milioi euro–, Tafallako eskualdeko espazio eszenikoa eraikitzeko diru-laguntzei dagokie batez ere –1,9 milioi euro–.

Diru-sarreren aurrekontuaren betetze-maila ehuneko 83koa izan da; diru-sarrera arruntena ehuneko 92 izan da, eta kapital bidezko diru-sarrerena ehuneko 65. Azken horien betetze-maila txikia izan da, funtsean, kapital-transferentzien betetze-maila ere txikia izan delako, ez baitziren ehuneko 61 besterik bete.

2011. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 5,9 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak, 2012	Aitortutako eskubide garbiak, 2011	Aldearen %, 2012/2011
1. Zuzeneko zergak	3.104.311	3.033.857	2,32
2. Zeharkako zergak	531.658	395.350	34,48
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.425.168	1.659.709	-14,13
4. Transferentzia arruntak	4.543.324	4.920.909	-7,67
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	415.252	356.742	16,40
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	10.019.713	10.366.567	-3,35
6. Inbertsio errealeen besterentzea	176.272	106.083	66,16
7. Kapital-transferentziak	2.418.531	3.048.648	-20,67
9. Finantza-pasiboak	698.600	620.100	12,66
Kapitaleko eta finantzaketa bidezko diru-sarrerak (6tik 9ra)	3.293.403	3.774.831	-12,75
Diru-sarrerak, guztira	13.313.116	14.141.397	-5,86

Kapital-transferentziengatik diru-sarrerek –ehuneko 21– eta diru-sarrera arrun-tek –ehuneko 8– izan duten urritze nabarmena izan da diru-sarrerak horrenbeste urritzeko arrazoia, eta, horrenbestez, urtean zehar gauzatutako inbertsioak ere gutxitzeko arrazoia.

2012an 0,699 milioi euroko epe luzerako maile-gu bat hartu zen.

Ondorengo koadroan udal-zerga bakoitzaren arabera aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da (eurotan):

Zergak	Aitortutako eskubideak (2012)	Aitortutako eskubideak (2011)	Aldearen %, 2012/2011
Lurraren kontribuzioa	1.950.342	1.807.954	7,88
Ibilgailuak	567.992	551.098	3,07
Lursailen balioa handitzea	155.329	153.359	1,28
JEZa	430.649	521.446	-17,41
EIOZa	531.657	395.350	34,48
Guztira	3.625.969	3.429.207	5,74

Oro har, zerga bidezko diru-sarrerek ehuneko 5,7 egin dute gora; igoera hori zor zaio, funtsean, lurralde-kontribuzioaren igoerari. Horren arrazoia, funtsean, honakoak izan dira: izandako altak eta lehorreko lurak ureztalur bihurtzea. Halaber, nabarmentzekoa da JEZaren gutxitzea, zeinaren arrazoia izan baita, funtsean, aparteko izaera zuten 2011ko diru-sarrera aitortu batzuk, 131.854

euro egiten zutenak. EIOZaren igoera 152.588 euroko behin betiko likidazio bati zor zaio. Gaur egun, haren aurkako errekurso bat dago Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Udalak aplikatzen dituen tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jaso-tzen duen sortako tarte ertain-altuan kokatzen dira, ondoko taula honetan ikus daitekeen bezala:

Tributua	2/1995 Foru Legea	Udala
Lurraren kontribuzioa	0,10 - 0,50	0,199
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	1 - 1,4	1,32 - 1,40
Lurren balioaren gaineko zerga		
Gaurkotze-koefizientea	2,1-3,6	3,4-3,6
Karga-tasa	8-20	20
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	2 - 5	<u>3,1 (aurrekontua 2.500 € baino txikiagoa bada)</u> <u>5 (aurrekontua 2.500 € baino handiagoa bada)</u>

Zerga-tasa horiek aurreko urtean aplikatutakoen berdin-berdinak dira, salbu eta lurraren kontribuzioari dagokiona, zeren eta % 0,472 izatetik % 0,199 izatera pasa baita, balorazio-ponentzia berri baten aplikazioaren zeharkako ondorio gisa; izan ere, ponentzia hori 2011ko amaieran berrikusi zen 2012an aplikatzeko.

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

VI.6. INBENTARIOA/IBILGETU MATERIALA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1993an egin zen, eta ez da gaurkotu, nahiz eta udal zerbitzu ezberdinei atxikiriko ondasunen zerrenda gaurkotu bat badagoen, kostu-azterlanerako eginikoa.

Udalaren ondasunen eskriturazte- eta erregistratze-prozesua burutzeke dago.

Kirol hiria eraiki den lurra, udalaren jabetzakoak, "Ciudad Deportiva de Tafalla, S.A." udal sozietateari atxiki zaizkio, 2012ko abenduaren 18an egindako Osoko Bilkuraren erabakiaz.

Udalak, 2009ko abenduaren 1ean, eskritura publikoan gauzatu zuen "Hospital de Nuestra Señora de la Caridad" entitateari egoitza berria eraikitzeke dohainik egindako ondare-ondasuna den hiri-lursailaren lagapena, 862.963 euroko balioa duena. Lagapen hori baldintzatuta dago erabilera hogeita hamar urtez zahar-etxearena izatera, egoitza hori hirugarrenei lagatzeko eta errentan emateko baimenik gabe. Orain arte lagapen-baldintzak betetzen ari dira.

Gure aholkuak:

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotzea eta onestea.*
- *Udalaren ondasunak eskrituratu eta erregistratzeko prozesua burutzea, haien egoera juridikoa eta zertarako erabiltzen diren adieraziz.*
- *Inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko.*

VI.7. HIRIGINTZA

Tafallako Udalak bere baliabideen bitartez egin ditu hirigintzako lanak, Hiri-gintza Alorra izeneko organo baten bitartez. 2012ko ekitaldiko plantilla organikoan adierazten denaren arabera, bertako jarduerak egiteko izendatutako langileak honako

hauek dira: bi arkitekto, arkitekto tekniko bat, administrari bat eta administrari laguntzaile bat.

Horrez gainera, 2012ko ekitaldian, Udalak 6.991 euroko betebeharrak batzuk aitortu ditu, kanpoko hirigintza-aholkularitzagatik.

Tafallako Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1994an onetsi zen. Lu-rraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitarteko– indarrean dauden planeamenduak homologatzeko eta egokitzeke.

Udala hasia da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen ezarritakora egokitzekeko tramiteak egiten, 2011ko maiatzaren 13ko Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin sinatzeko hitzarmena onartzeko hartutako erabakiaren bidez. Une honetan hitzarmen hori behin betiko onartzeko dago.

Udalaren lurzoru-ondarea ez da kudeatzen erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta bereizia izatea, eta era berean, ez da sortu ondasun horien sarrera eta irteeraren berri emateko erregistroa.

Udalak aurkezturiko oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzaturiko hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Hirigintzako ekimenen lagin bat aztertu dugu eta oro har ongi tramitatuta daudela ikusi dugu, xehetasun-azterketa bat salbu, azterketa hori tramitatu eta onartzen arrazoizkoa ez den atzerapen bat ikusi baita.

Gure aholkuak:

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzekeko prozesua burutzea.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela izateke.*

VI.8. "CIUDAD DEPORTIVA TAFALLA, S.A." SOZIETATEA

"Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." pertsona bakoitzeko sozietatea da, eta Tafallako Udala du akzio-dun bakarra. 2001ean eratu zen, 300.000 euroko kapital sozialarekin. Kapital sozial horretan, bost kapital-gehikuntza egin dira, 13,9 milioioak guztira.

2012ko ekitaldiko urteko kontuak txosten honi erantsirik oroitidazkian sartuta daude eta udaleko kontu-hartzaileak egin zuen horien finantza-kontrolako berrikusketa.

Kirol hiria eraiki den lurrak, udalaren jabetzakoak, "Ciudad Deportiva de Tafalla, S.A." udal

sozietateari atxiki zaizkio, 2012ko abenduaren 18an egindako Osoko Bilkuraren erabakiaz.

Ekitaldiaren emaitzak, 2012ko abenduaren 31n, negatiboa izaten jarraitzen du (-262.869 euro). Honako taulan xehakatu dugu:

	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Ekitaldiko emaitzak	-323.016	-268.079	-215.659	-251.277	-288.328	-262.869
lbilgetuaren amortizazioa	356.064	330.615	333.308	333.951	334.282	334.455
Emaitzak amortizaziorik gabe	33.048	62.536	117.649	82.674	45.954	71.586

2012ko eta 2011ko abenduaren 31ko egoera-balantzeek eta galeren eta irabazien kontuek –urteko kontuetan sarturik daude– honako saldoak erakusten dituzte:

Egoera-balantzea

Jardunean	2012	2011	Pasiboa	2012	2011
Aktibo ez korrontea	12.917.696	13.249.519	Ondare garbia	12.965.190	13.279.356
Eraikinak	15.333.899	15.333.899	Kapitala	13.917.000	13.917.000
Lanabesak	1.175	1.175	Borondatezko erreserbak	-57.153	-57.153
Bestelako instalazioak	271.788	269.156	Aurreko ekitaldiko emaitza negatiboa	-2.185.683	-1.897.355
Altzariak	7.004	7.004	Ekitaldiko galerak	-262.869	-288.328
Amortizazio metatua	-2.696.170	-2.361.715	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.553.895	1.605.192
Aktibo arrunta	52.312	51.641	Pasibo ez arrunta	0	0
Zordunak	352	3.111	Pasibo korrontea	4.818	21.804
Epe laburreko inbertsio finantzarioak	45.000	48.000	Epe laburreko zorrak	0	0
Eskudirua	6.960	530	Merkataritzako hartzekodunak	4.818	21.804
Aktiboa, guztira	12.970.008	13.301.160	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	12.970.008	13.301.160

Galera eta irabazien kontua

Zor	2012	2011	Hartzeko	2012	2011
Gastuak	352.540	377.279	Diru-sarrerak	89.671	88.952
Bestelako ustiatze-gastuak	18.085	42.811	Negozio-zifraren zenbateko garbia	37.990	37.028
Konponketak eta kontserbazioa	-	24.349	Salgaien salmenta	21.894	21.340
Zerbitzu profesional independenteak	6.491	7.159	Bukatutako produktuen salmentak	16.096	15.688
Banku zerbitzuak eta antzekoak	54	10	Emandako zerbitzuak	-	-
Hornidurak	813	817	Bestelako ustiatze diru-sarrerak	-	-
Bestelako zerbitzuak	10.727	10.476	Diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak	-	-
Aparteko gastuak	-	-	Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena	51.296	51.297
Ibilgetuaren amortizazioa	334.455	334.282	Diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak, ekitaldiko emaitzari transferitutakoak	51.296	51.297
Ibilgetu materialaren amortizazioa	334.455	334.282	Ustiatzeagatiko galerak	263.253	288.769
Ustiatze-etekinak	-	-	Diru-sarrera finantzarioak	384	627
Finantza-gastuak	-	186	Finantza bidezko bestelako diru-sarrerak	384	627
Taldeko enpresen zorrenгатiko interesak	-	186	Emitza finantzarioak (galerak)	-	-
Emitza finantzarioak (etekinak)	384	441	Emitza, zergak baino lehen (galerak)	262.869	288.328
			Ekitaldiko emaitza (galerak)	262.869	288.328

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko urriaren 31n

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas